

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Bezeroei dagokienez, gure helburu nagusia da hauek naturarekin harremanetan jartzea, eta bere inguruan dituzten leku natural, berezi eta historikoki esanguratsuak direnak ezagutzeko baliabide eta ahalik eta erraztasun gehienak eskaintzea, adibidez, eguraldiaren arazo eta onurak kontutan hartuta gomendioak ematea, leku historikoen inguruko azalpenak, ehizaren ondorioz bide debekatu edo arriskutsuak, egonaldiak egiteko jatetxe edo bestelako aterpeak aipatzea...

Hau kontutan hartuta, gure bezeroak, ingurua ezagutzeko gogoia eta nahi berdina dituzten beste bezeroekin harremanetan jartzeko prest daudenak izango dira (Ez dute zertan beste bezero batzuekin erlazionatu behar baina guk aukera hori eskeiniko diegu). Edozein adinekoak izan daitezke, beti ere aplikazioa deskargatzeko aukera eta hura erabiltzeko gaitasuna badute.